

* EUSKAL HERRIKO 37. ITZULIA

Ibilbidearekin bueltaka

Zuzendarien artean eztabaida sortu da, Euskal Herriko Itzulian aldaketak egin behar diren edo ez


Pello Aiestaran / Donostia

Amaitu da dagoeneko Euskal Herriko Itzulia, eta nolabait balantzea egiteko ordua iritsi da. Oro har, ez da karrera espektakularra izan, batetik ONCEk izugarritzko nagusitasuna erakutsi duelako, eta bestetik ibilbideak ez duelako gauza asko egiteko aukerarik eskaini. Hori da, behintzat, zenbait zuzendariren iritzia. Euskal Herriko Itzulia iraun bitartean izan da aldaketak proposatu duenik. Eztabaida hortxe dago.

Ibilbidearen samurtasunarekin gehien kexatu dena Manolo Saiz izan da. ONCEko zuzendariak dio Euskal Herriko Itzulia ez dela berak ezagutu zuen hura, lehen askoz ere lehiatuagoa gertatzen zela. Eta hori konpontzeko, kronoigoera aurreneko egunetan jartzea proposatu du. «Bide bazterretan biltzen diren zailengatik ez balitz, ez nuke esango Euskal Herrian gaudenik. Hemengo errepideek ematen dituzten aukerekin ez dakit nolaz egingen duten horrelako ibilbidea». Hori Euskal Herriko Itzuliaren hasieran esan zuen, oraindik gauza asko zegoenean erabakitzeko. Garapen karrera ia erabakita utzi ondoren ere berdin pentsatzen jarraitzen zuen.

Batzuk Saizekin ados • Izan da Manolo Saizekin erabat ados agertu denik. Horien artean gogorrena Miguel Moreno Lotus etxeko zuzendaria izan da. Gasteizko irteeran bere ikuspuntua azaldu zigun, oso keinu adierazgarriekin. «Kronoigoera hasieran jarri beharra dago. Lehen egunean ez bada, gehienez ere bigarrenean. Bost eguneko karrera batean kronoigoera bukaerarako uzten baduzu, proba erabat baldintzatzen duzu. Batzuek ez dute lanik egiten, bukaeran irabazteko itxaropen txiki bat edukitzen dutelako. Oso eroso da Giroaren edo Tourraren zain egotea, ezer egin gabe».

Kronoigoeraz gain, beste aldaketaren bat ere egingo luke Miguel Morenok. «Etaparik ez bada amaitzen mendian, eta gainera Jaizkibel, Herrera edo Urduña bezalako mendateak hasieran jartzen badituzu, karrera txepela gertatzen da. Gainera, kronoigoera bukaeran jokatzen bada, errematatu egiten duzu proba. Nik jarriko nuke, adibidez, bigarren egunean, goizean kronoigoera bat, eta arratsaldean 80-90 ki-



Aurtengo ibilbidea bigunegia izan dela diote gehienek. Irudian, tropela Vianatik pasatzen.

ANDER GILLENEA

lometroko etapa laburra baina urduria. Hor bai izango litzatekeela lehia».

Berak proposatzen dituen aldaketekin karrera ez ote litzatekeen blokeatuta geratuko galde-tu genion Morenori. «Liderraren taldea saiatuko litzateke blokeatzen, hori argi dago. Baina beste talde batzuk denbora pixka bat urratzeko beharrean egongo liriteke, eta lehia askoz handiagoa izango litzateke. Karrera blokeatu egingo litzatekeela esatea ez da zuzena, teoria hori okerra da. Karrera blokeatu nahi duenak izugarritzko lana egin beharko luke, eta ikusi egin beharko litzateke eraso guztiei aurre egiteko gai den ala ez».

Eusebio Unzué Banestoko arduradunak uste du antolatzaileek izango dutela arrazoirik proba horrela antolatzeko. Dena den, mendian amaitzen den etapa baten falta igartzen du. «Beno, denok ados jartzea oso zaila da, eskalatzaileak dituztenek mendi gehiago nahiko dutelako eta erlojupeko espezialistak dituztenek ibilbide bigunagoa nahiko dutelako. Pentsatzen dut antolatzaileek izango dutela arrazoirik bat ibilbide hau ezartzeko,

Ugarte: «Ez dugu sistema aldatuko»

ZUZENDARIEK ibilbideari buruz dituzten kezkak, kritikak eta proposamenak bildu ondoren, Euskal Herriko Itzuliko antolatzaileek horri guztiari buruz zer duten esateko jakitea ere interesgarria dela iruditu zaigu. Horretarako, Jaime Ugarte antolatzaileen koordinatzaile nagusiarekin aritu gara hizketan. Ugartek gogor defenditu du egungo sistema.

«Gure iritzia oso zehatza da gai honetan», dio Ugartek. «Euskal Herriko errepideak

ikusita, aitzin-etapa bat jartzen baduzu karrera blokeatzeko aukera asko dituzu. Gure proban beti gertatzen da favorito multzo bat aurrean, azken egunean haien artean jokatzeko garaipena. Eta batzuetan, aurreko egunetan ere, adibidez gaur [Jaime Ugarterekin Garapeko amaieran hitz egin genuen] gauza asko argitzen dira. Zenbait gauza aldatu egin behar direla dioten horiekin ez gaude batera ados, gure itzulieren sistemarekin oso

gustura gaude».

Batzuetan, haiek nahi dituzten ibilbideak antolatzea ezinezkoa dela dio Jaime Ugartek. «Batzuetan gauza asko egiteko aukera izaten dugu, baina beste batzuetan toki batera joan behar duzu nahitaez eta ez duzu ezertarako aukerarik ematen. Mendirik ez badago, nik ezin dut asmatu. Orduan, pixka bat bilatu behar dugu zailtasun handiena, zailtasun gehiegirik ere ez duen toki batean». Irteera edo helmuga izatea eska-

zten duten herrien arabera moldatzen direla defenditu zuen Ugartek. «Adibidez, datorren urtean Hondarribitik aterako gara. Lehenengo etapan ez, hori beti lasaiagoa egingen dugulako, baina bigarrenean, Hondarribitik aterata Jaizkibel igotzeko aukera dugu. Agina, Aritxulegi... igo ditzakegu. Dena da goazen tokiaren arabera. Baina sistema aldatzearena, hori ez zaigu batere gustatzen, eta ez dugu aldatuko inondik inora».

haiek baitira proba espektakularra egiteko gogo handien dutenak. Baina egia da mendian amaitzen den etapa bat falta dela, horrek beti ziurtatzen ditu espektakulua». Beste mota bateko irtenbideren bat bilatzeko ahalgina egin beharko litzatekeela dio Unzuék. «Nik ez dut kritikatzin ibilbide hau, baina iruditzen zait beste konbinazio batzuk bila daitezkeela, espektakulu gehiago ziurtatzeko. Orain erabiltzen den sistemarekin batzuetan karrera blokeatuta joaten da, eta hori ez da ona».

Besteak aldaketan kontra • Eztabaida sortu da, baina tropelean ez dira denak aldaketak egitearekin ados ageri. Alvaro Pino Kelme taldeko zuzendariak, esate

baterako, uste du hobe dela gauzak dauden daudenean uztea. «Ni neu ez nago aldaketak egitearen alde. Agian, mendian amaitzen den etapa bat sartuko nuke, adibidez, lehen Ibardinen amaitzen zena. Hor favoritoen artean segundo batzuk izaten ziren. Beno, Ibardinen edo beste nonbaiten, ez dauka mendate zehatz bat izan beharrik. Baina kronoigoera hasieran jartzea... Ziurrenik karrera gehiago blokeatuko litzateke. Batzuek liderrari eusteko eta besteek etapak irabazteko, dena blokeatuko lukete».

Pinoren iritziz, aldaketan gai hau uler da aurtun Euskal Herriko Itzulia ez delako hain lehiatua izan. Baina horren arrazoia ere eman du: «Lehenengo etapa oso azkar egin zen, baina gero

haize ikaragarria egin zuen hurrengo bi egunetan. Eta horrela ez dago zereginik. Ezin zara alfer-alferrik borrokan aritu, indarrak gastatzea besterik ez duzu lortzen eta. Esaten dizut, nik berriro mendian amaitzen den etapa jarriko nuke, baina kronoigoera aurreratzearen kontra nago».

Txomin Perurenak ere uste du karrera dagoen bezala ondo dagoela. «Nik ez nuke ezer aldatuko, uste dut horrela ondo dagoela. Kronoigoera aurreratu? Uste dut hori eginda karrera blokeatuta geratzeko arriskua handia delatela indartsuenek ez luketelako mugitzeko ere aukerarik eman go». Ikus daitekeenez, era guztietako ikuspuntuak daude tropelean. X

Miguel Moreno: «Kronoigoera hasieran jarri beharra dago, lehen egunean ez bada bigarrenean, bestela karrera erabat baldintzatzen baituzu»

Alvaro Pino: «Ni neu aldaketak egitearen kontra nago. Mendian amaitzen den etaparen bat jarriko nuke, besterik gabe»